

Julian Iruretagoiena Olalde

*Azkoitia,
Gipuzkoa
(1924-2014)*

Aurkibidea

Biografia



Juintorre ondoan jaio zen 1924an. Gurasoak kaletarrak zituen eta 6 anai-arreba ziren. Eskolan, lehenbizi Mixirikordian ibili zen mojekin eta geroago fraideekin ere ibili zen. 14 urterekin eskola utzi eta Arrizabalaga lantegian hasi zen abarketagintzan. 18 urterekin "Epelde y Larrañaga" lantegira joan zen. Soldadutza Burgosen egin zuen 20 urtetik 23 urtera bitartean. Azkoitian ezkondu zen eta 5 seme-alaben aita da.

Zintak

AZK-026

- **Proiektua:** Azkoitiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2008-04-28
- **Iraupena:** 48 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber

Pasarteak

1. Juin dorrean jaioa 1924an

- **Erref:** AZK-026/001
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Azkoitiko Juin dorrean jaio zen 1924an. Gurasoak ere azkoitiarrak zituen, eta sei anai-arrebako familiakoa da.</p>

2. Mojetan eta Floreagan ikasia

- **Erref:** AZK-026/002
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:01:17. **Bukatu:** 00:04:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

<p>Eskolan Karitateko mojen eskolan ibili zen zazpi urtera arte. Jaunartzea egin ondoren Floreagan hasi ziren eta handik batxilergora. Gerra zela-eta, 12 urterekin eskola utzi behar izan zuten.</p>

3. Abarketagintzan lanean

- **Erref:** AZK-026/003
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:04:04. **Bukatu:** 00:06:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak

Laburpena:

<p>15 urterekin abarketak egiten hasi zen Arrizabalaga lantegian eta

ondoren Epelde y Larrañaga lantegira joan zen. Abarketentzako materiala Azkoitian bertan egiten zuten. Abarketak egiteko prozesua azaltzen du.</p>

4. Azkoitia, abarketaren herria

- **Erref:** AZK-026/004
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:06:46. **Bukatu:** 00:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak

Laburpena:

<p>9-10 orduko laneguna izaten zuen eta ondo irabazten zuen. Epelde y Larrañaga lategian arduradun izan zen. Abarketagintzako 54 lantegi izatera iritsi zen Azkoitia. Erdi kalean aritzen ziren emakumeak abarketak josten. Anekdotak bat kontatzen du.</p>

5. Umetan, pilotan

- **Erref:** AZK-026/005
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:11:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Umetan pilotan aritzen ziren, pilotaleku asko zeuden Azkoitian. Soldadu zegoela pilotan egin zuenekoak kontatzen du; 16tik laugarren geratu ziren.

6. Juin jauregiko zaintzaile

- **Erref:** AZK-026/007
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:12:41. **Bukatu:** 00:14:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Etxe ingurua deskribatzen du. Baratzea eta untxiak zituen etxean. Konde batzuk ziren Juin jauregiko nagusiak eta gutxitan joaten ziren Azkoitira. Julianek eta etxeokoei zaintzen zuten jauregia eta trukean beraien etxeagatik ez zuten ezer ordaindu behar izaten.</p>

7. Erromeriara Madariagara eta Martitera

- **Erref:** AZK-026/009
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:15:14. **Bukatu:** 00:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Erromeriara Madariaga eta Martirietara joaten ziren, besteak beste. Oinez joaten ziren, herrian hiru auto besterik ez zeuden-eta. Erromeria angelusa jo arte izaten zen eta trikitiaren doinuz dantzan aritzen ziren.</p>

8. Azkoitiko zinemak

- **Erref:** AZK-026/010
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:16:30. **Bukatu:** 00:17:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Azkoitiko zinemak aipatzen ditu; Baztartxo, Olinpia. Mutilak tabernan eta neskek pasiatzen ibiltzen ziren kalean; elkarrengandik aparte ibiltzen ziren. Neskek debekatua zuten tabernan sartzea.

9. Igandeetan meza eta bezperak

- **Erref:** AZK-026/011
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:17:26. **Bukatu:** 00:18:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Igande goizetan meza nagusira, arratsaldean bezperetara eta ondoren pilotan jokatzera joateko ohitura izaten zuten.


10. Azkoitia eta inguruko alpargatagileak

- **Erref:** AZK-026/012
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:18:02. **Bukatu:** 00:19:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Epelde y Larra  lantegia itxi zenean sozio batekin lanean hasi eta ondoren berak bakarrik jarraitu zuen. Inguruko alpargatagileak aipatzen ditu.

11. Soldadutzara 20 urterekin Burgosera

- **Erref:** AZK-026/013
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:19:28. **Bukatu:** 00:23:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Soldadutzara 20 urterekin joan zen Burgosera trenez. Zalditeriako kide izan zen. Tiroetan onena izan zelako bera izan zen lehenengoa etxera bueltatzeko baimena lortu zuena. Azkoitiko lagun asko izan zituen eta euskaraz hitz egiten zuten.</p>

12. Juin jauregia, gerra garaian, kartzela

- **Erref:** AZK-026/014
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:23:08. **Bukatu:** 00:24:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra denboran Azkoitiko Juin jauregia kartzela modura erabili zuten. Bonbak bota eta berak ikusitakoa kontatzen du.

13. Errazionamenduko ogia eta olioia

- **Erref:** AZK-026/015
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:24:40. **Bukatu:** 00:26:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gerra-garaian errazionamenduko ogia ezagutu zuen, eta ez zen jateko modukoa izaten. Olioia oso garestia izaten zen errazionamenduan.

14. Ezkon-bidaian Gijonera osabarengana

- **Erref:** AZK-026/016
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:26:05. **Bukatu:** 00:27:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Emaztea lantegian ezagutu zuen. Azkoitian ezkondu zen 36 urte zituela. Ezkon-bidaiara Gijonera joan ziren osaba jesuita bertan baitzuten.</p>

15. Elizara ez joatea bekatu

- **Erref:** AZK-026/017
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:27:25. **Bukatu:** 00:31:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Elizara ez joatea bekatu zela esaten zuten eta astero joaten ziren. Luistarren kongregazioan egon zen maisu. Arrosarioa egunero errezatzen zuten. Jauna hartzera baraurik joan behar izaten zen. Bi jaunartze egin zituen eta haiek egiteko dotrina ikasi behar izaten zuten aurrez.</p>

16. Karlistak eta nazionalak Juin jauregian

- **Erref:** AZK-026/018
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:31:15. **Bukatu:** 00:35:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Juin jauregian, Loiolako jesuitak eta moja frantziskotarrak egon ziren, besteak beste. Kartzela izan zenean, karlistak eta nazionalistak egon ziren, eta Julian kartzela barruan ibiltzen zen askotan. Julianen amari eta berari deklaratzera joateko abisua bidali zieteneko pasadizoa kontatzen du.

17. Erromerietara alpargatak jantzita

- **Erref:** AZK-026/023
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:39:28. **Bukatu:** 00:40:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Erromerietara alkandora zuria, praka meheak eta abarketak jantzita joaten ziren.</p>

18. Azkoitiko jauregiak

- **Erref:** AZK-026/024
- **Iraupena:** 0:04:31. **Hasi:** 00:40:14. **Bukatu:** 00:44:45

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

<p>Azkoitian baserri asko zegoen. Jauregiak izendatzen ditu; jabeak kanpotarrak izaten ziren. Juin jauregia deskribatzen du. Aberatsena izan arren jauregia, arropak xaboi-hautsarekin eskuz garbitzen zituzten eta plantxak ohol batean sutan berotutakoak izaten ziren.</p>

19. Andra Mari jaiak, prozesioak eta dantza lotua

- **Erref:** AZK-026/025
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:44:45. **Bukatu:** 00:46:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Azkoitiko Andra Maria jaien aipamena egiten du. Dantza lotuan eginez gero kongregaziotik botatzen zituzten. Prozesio ugari egiten zen Azkoitian eta Julianek estandartea eraman ohi zuen bizkarrean.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com